



# Soziolinguistika albistaria

38. zenbakia  
2018ko ekainak 1 - 14

## Soziolinguistika Klusterreko albistea

---

### Jendaurreko euskarazko komunikazioa: praktikatik ikasten

Uztailaren 9 eta 10ean izango da Bilboko Bizkaia aretoan Jendaurrean Erabili proiektuari lotutako uda ikastaroa. Ikastaroan saio-mota ezberdinak izango dira: Gaiaren azterketa teorikoak (Beatrix Zabalondo eta Eduardo Apodaka); erakunde zehatzentzako esperientziak (Donosti...).

### Hizkuntza-ekologiaz bi hitz (Belen Uranga)

Euskonews aldizkariaren 730. zenbakian artikulua idatzi du Belen Uranga Soziolinguistika Klusterreko kideak.

## Ikerketak

---

### Vigoko Unibertsitatean galegoaren erabilera buruzko ikerketa

(*Observatorio da Lingua Galega*) Primeiro estudo sociolingüístico na Universidade de Vigo dende 1996. O aumento do dominio do galego entre a comunidade universitaria é maior ca o incremento do seu uso.

### Hizkuntzen erabilera buruzko inuesta Maltan

(*Azkue Fundazioa*) Malta Today egunkarian inuesta bat egin dute Maltako hizkuntzen erabilera buruz eta emaitzak oso interesgarriak dira. Inestak maltarrek etxeen, kalean, lanean, albisteak irakurtzean edo Facebooken idazterakoan aukeratzen duten hizkuntzei buruz galdeztzen du. Artiku...

### Haurren ilustrazio liburuek hizkuntza hierarkiak hautsi ditzakete

(*Azkue Fundazioa*) Artikulu honetan autoreak planteatzen duena zera da: elebidunak diren haurren ilustrazio liburuetan hizkuntzak aurkezten diren erak status quo-a aldatu dezakela.

## Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

---

### "Euskararen munduak : indar-guneak eta erronkak" jardunaldia ekainaren 29an Baionan

(Iker) Euskal Etnopoloaren labelaren baitan, EKE-k eta EHESS-ek euskararen indar-guneen inguruko gogoetaldi baten eramatea proposatzen dizuete. Kolokio hau, IKER eta Euskaltzaindiaren partaidetzarekin antolatua da heldu den ekainaren 29an, Baionako Gaztelu Berrian.

### Deialdi irekia Euskaltzaindiaren hurrengo biltzar handirako

(Sustatu) Euskaltzaindiaren 17. Biltzarra urrian izango da (4tik seira), 'Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018)' izena edukiko du, eta deialdi publikoarekin dator. 1968tik euskara batuak egin duen bidea azaldu, egungoaz gogoeta egin eta eginkizun dagoena zehaztu nahi dira bi...

### Ikastaroa Jacan: La normalización social de las lenguas minoritarias.

(Universidad Zaragoza) La normalización social de las lenguas minoritarias. Experiencias y procedimientos para la salvaguarda de un patrimonio inmaterial | Cursos de verano. Jaca. Fecha evento: 12/07/2018 al 13/07/2018. Directores: Javier Giralt Latorre, Profesor Titular de la Universid...

## Liburuak eta artikulu zientifikoak<sup>1</sup>

---

### "Euskararen bizitasuna eta balioa zenbakitara eramatzen" Jacqueline Urla eta Christa Burdick IJSL-n

(IJSL) Counting matters: quantifying the vitality and value of Basque. International Journal of the Sociology of Language

### Unibertsitate-liburuen sorkuntza sustatzeko diru-poltsen deialdia ireki du UEUk

(Unibertsitatea.eus) Udako Euskal Unibertsitateak, "Unibertsitate-liburuen sorkuntza sustatzeko diru-poltsak 2018ko deialdia" ireki du, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin.

<sup>1</sup>Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean **HABE Liburutegira** ([liburutegi@habe.eus](mailto:liburutegi@habe.eus)), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

## Bestelako albisteak

---

### 2017ko Hizkuntza-Eskubideen Egoera txostena aurkeztu du Behatokiak

*(Behatokia)* Hizkuntz Eskubideen Behatokiak urteko txostenaren aurkezpena egin du, aurten Iruñean. Arantza Haranburuk eta Edurne Arrizibitak eman dute ‘Hizkuntza Eskubideak Euskal Herrian 2017an’ lanaren berri. Euskaldunontzat erosoa sentitzeko gunek sortu beharra aldarrikat...

#### **"Euskal Idazleen Elkartearen erronkak euskararenak ere badira"**

*(Sustatu)* Orain bi hilabete hartu zuen EIE Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaritza Garbiñe Ubedak (Ibarra, Gipuzkoa, 1967). Pixkanaka ari da elkartearen egunerokora moldatzen, baina finkatu ditu helburu batzuk jadanik. Euskal idazleen egoera euskararen egoeraren parekoa dela...



BABESLEA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

BAZKIDE PARTAIDEA

